

Don IÑAKI TXINTXURRETA PERDIGUERO jn.

**Donostiako Udaleko Bitarteko Idazkari Nagusia naizen honek
Secretario General en funciones del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:
Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzardeak, 2025eko urriaren 28an egindako ohiko bilkuran, Erakunde adierazpen hau onartu zuela, lehenengo puntua, gehiengoz, eta bigarrena, aho batez:

**"ERAKUNDE ADIERAZPENA, "ALBOKO
ESKLEROSI AMIOTROFIKOA ETA
KONPLEXUTASUN HANDIKO BESTE
GAIXOTASUN EDO PROZESU ITZULEZIN
BATZUK DITUZTEN PERTSONEN BIZI-
KALITATEA HOBETZEKO LEGEA" BETE ETA
FINANTZATZEA ESKATZEKO**

Alboko esklerosi amiotrofikoa eta konplexutasun handiko beste gaixotasun edo prozesu itzulezin batzuk dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko lege-proposamena aho batez onartu zen Diputatuen Kongresuan eta Senatuan, 2024ko urriaren 10ean eta 23an egindako osoko bilkuretan, hurrenez hurren.

Urriaren 31ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 3/2024 Legea, eta haren xedea da gizartearen eta, bereziki, "administrazio publiko eskudunen konpromisoa islatzen duen esparru juridiko bat ezartzea, haren aplikazio-eremuan sartzen diren pertsonen eta haien familiei tratu duina, errespetuzkoa eta egokia bermatzeko, bereziki kontuan hartuta AEaren eta antzeko beste gaixotasun batzuen kasuan, biziraupen-aldiak laburrak direla".

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 28 de octubre de 2025, aprobó, el primer punto, por mayoría y el segundo, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

**"DECLARACIÓN INSTITUCIONAL PARA
EXIGIR EL CUMPLIMIENTO Y
FINANCIACIÓN DE LA
"LEY PARA MEJORAR LA CALIDAD DE VIDA
DE PERSONAS CON ESCLEROSIS LATERAL
AMIOTRÓFICA Y OTRAS ENFERMEDADES O
PROCESOS DE ALTA COMPLEJIDAD Y
CURSO
IRREVERSIBLE**

La Proposición de Ley para mejorar la calidad de vida de personas con Esclerosis Lateral Amiotrófica y otras enfermedades o procesos de alta complejidad y curso irreversible fue aprobada por unanimidad en el Congreso de los Diputados y en el Senado durante las sesiones plenarias celebradas los días 10 y 23 de octubre de 2024, respectivamente.

Publicada en el Boletín Oficial del Estado el día 31 del referido octubre, la Ley 3/2024 tiene como objeto establecer «un marco jurídico que refleje el compromiso de la sociedad y, en particular, de las administraciones públicas competentes, de asegurar un trato digno, respetuoso y adecuado para las personas incluidas en su ámbito de aplicación, así como sus familias, teniendo en cuenta, particularmente, los reducidos rangos temporales de supervivencia en el caso de la ELA y otras enfermedades similares».



Espainiako gizarte osoak oso erreakzio positiboa izan zuen 3/2024 Legearen aurrean, batez ere pazienteen ordezkariak. Era berean, oro har, Espainiako Gobernuak beharrezko aurrekontu-zuzkidura bermatzeko beharra planteatu zen, proposatutako aurrerapenak gauzatu ahal izateko sine qua non baldintza gisa. Ildo horretan, eta Luzón Fundazioak egin eta iazko urrian argitaratutako "Estudio de costes de la ELA para las familias en España" azterlanaren arabera, "gaixoen familiak gaur egun beren gain hartzen dituzten zuzeneko kostuak bakarrik" kontuan hartuta, "184 milioi eurotik 230 milioi eurora bitartekoak" dira urteko kostuak, eta "finantzaketa espezifikoak" behar dute.

Espainiako Gobernuak ez du ekitaldi honetarako Estatuko Aurrekontu Orokorren proposamenik aurkeztu, eta 2023tik luzatutako kontuen testuinguruan, ez ditu beharrezko aurrekontu-partidak gaitu.

Horiek horrela, hauxe da Donostiako Udalaren erakunde adierazpena:

1. Donostiako Udalbatzak erabaki du Espainiako Gobernuari eskatzea ahalik eta lasterren onar eta bana dezala 3/2024 Legean jasotako aurrerapen eta eskubide guztiak berehala gauzatzen direla ziurtatzeko behar den aurrekontu-zuzkidura, izan dadila atzeraeraginezko izaerarekin aipatutako araua indarrean jartzen denetik aurrera, eta banaketa hori Espainian gaixotasunak eragindako guzti-guztiek baldintza eta aukera berberetan eskuratzeko moduan egin dadila.

2. Donostiako Udalbatzak babes osoa adierazten die AEAk eragindako gaixoei, haien familiei, osasun-langileei eta zaintzaileei, gaixotasun horri eguneroko indarrez, duintasunez eta itzaropenez aurre egiten baitiote.

Donostia, 2025eko irailaren 15a

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea".

La reacción en el conjunto de la sociedad española a la Ley 3/2024 fue muy positiva, especialmente en el entorno de los representantes de los pacientes. Se planteó también, de forma generalizada, la necesidad de que desde el Gobierno de España se garantice la dotación presupuestaria necesaria como condición sine qua non para que los avances propuestos puedan ser materializados. En este sentido, y de acuerdo con el 'Estudio de costes de la ELA para las familias en España' elaborado por la Fundación Luzón y publicado en octubre del año pasado, los costes anuales considerando «solamente los costes directos que actualmente asumen las familias de los enfermos» oscilan «entre los 184 millones de euros y los 230 millones» y requieren «una financiación específica».

El Gobierno de España no ha llegado a presentar propuesta de PGE para el presente ejercicio, ni ha habilitado las partidas presupuestarias necesarias en el contexto de las cuentas prorrogadas desde 2023.

Por todo ello, el Grupo Popular en el Ayuntamiento de San Sebastián presenta la siguiente Declaración Institucional.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián acuerda instar al Gobierno de España a aprobar y distribuir con máxima urgencia la dotación presupuestaria necesaria para asegurar que todos los avances y derechos contemplados en la Ley 3/2024 se materializan con inmediatez, con carácter retroactivo desde la entrada en vigor de la referida norma y en condiciones de equidad y plena accesibilidad en toda España para la totalidad de los afectados.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián quiere mostrar todo su apoyo y cercanía a las personas enfermas de ELA, así como a sus familias, profesionales sanitarios y cuidadores, que cada día afrontan esta enfermedad con fuerza, dignidad y esperanza.

San Sebastián 15 de septiembre de 2025

Borja Corominas Fisas

Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular".



Idazkaritza nagusia
Secretaría general

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, sinaduraren egunean.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a la fecha de la firma.

BITARTEKO IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL EN FUNCIONES

Iñaki TXINTXURRETA PERDIGUERO

ALKATEAK O. E. -
V. ° B. ° DEL ALCALDE: